



## 2014ko LATORRIZKO GEHITU SARIA

### LUIS TOSAR AKTOREAK GEHITUKO LATORRIZKO 2014 SARIA JASO DU LESBOFOBIA ZABALTZEN LAGUNTZEAGATIK

Homofobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren harira, maiatzaren 17an, Gehituk, Esukal Herriko lesbiana gay, transexual eta bisexualen elkarteak, Gehituko Latorrizko saria lortzeko urte osoan zehar ahalegin bereziak egin dituzten pertsona nahiz erakundeak aurkeztu ohi ditu. Sari hau urte osoan zehar homofobia, lesbofobia, bifobia eta transfobia hedatzen lagundu duten pertsona nahiz elkarteei ematen zaie.

Donostian ospaturiko saioan aurkezturiko bost izendatuen artean, bertaraturiko publikoak 2014ko Latorrizko Gehitu saria **Luis Tosar** aktoreari, “**Los Tres**” rock talde txiletarrari eta **Boris Quercia** zinegileari ematea erabaki zuen. Emakumeak erahiltzearen eta lesbofobiaren aldeko apologia egiten duela iruditzen zaigun, “Hey, Hey, Hey” abestiaren bideoklipan parte hartu eta arduradunen parte izateagatik.

“Bai abestiak eta bai bideoklipak, orokorrean emakumeen eta zehazki lesbianen aurkako erasoak hutsalezkoak hartzen eta justifikatzen laguntzen dute. Berezi larria da, bertan parte hartzen duten pertsonak ospe aurrerakoia edukitzea eta Tosarren kasuan, gisa honetako eraso eta krimenak gaitzetsi izan dituzten lan zinematografikoen ondorioz erreferente ezagun ere bilakatu izana.

